



**ESKABIDEA ON-LINE BETETZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO OHAR
GARRANTZITSUAK. LAN-LEGEPEKO HEZIKETA BEREZIKO
LANGILERIAREN ZERRENDAK**

Eskabidea formalizatzeke:

On-line eskabidea erabat bete ondoren, itxi beharko da eta, horretarako, "Eskabidea amaitu eta agiria sortu" atala markatu beharko da, ondo balidatuta eta erregistratuta gera dadin. Eskabidea ("Eskabidea amaitu eta agiria sortu" atala markatuz) ixten ez bada, eskabidea ez dela aurkeztu interpretatuko da.

Prestakuntza akademikoa:

On-line eskabidearen prestakuntza akademikoaren atalean, zerrendara sartzeko baldintza gisa eskatutako titulu ofizialak besterik ez da adierazi behar.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa ez den beste prestakuntzarik ez da inolaz ere adierazi behar, hauek esate baterako: ikastaroak, zerbitzu-orria, ez baitira prozesu honetarako baliagarri.

Titulazioak Hezkuntza-laguntzako espezialistaren kategoriarako baliozkoak direnak:

Gizarte Integraziorako Goi-mailako Teknikaria
Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikaria
Lanbide Heziketa II etxe arloa, gizarte-familia ekonomia espezialitatea
Lanbide Heziketa II etxe arloa, haurtzaindegiak espezialitatea
Lanbide Heziketa II etxe arloa, gizarte-egokitzapena espezialitatea
Lanbide Heziketa II etxe arloa, haur hezitzailea espezialitatea
Lanbide Heziketa II osasun arloa, minusbaliatu psikiko hezitzailea espezialitatea

Eskatutako hizkuntza-eskakizuna:

Hezkuntzako HLEA edo goragokoa irekitako zerrendetarako, hurrengo tituluak baliozkoak dira:

- HLEA
- HAEEko 3. HE (IVAP)
- HABEko 3.maila eta C1 maila
- Osakidetzako 3.HE
- Ertzaintzako 2.HE
- Hezkuntzako 2.HE



- EGA
- Euskaltzaindiaren D titulua
- Labayru Institutuaren 3. maila (1982-09-19a baino lehenago eman bada)
- Hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Ziurtagiria edo 5. maila (RD 47/1992 ikasketa-plana)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Maila (C1) edo Hizkuntza-eskola ofizialetako beste batzuk, C1 mailaren arabera.
- Unibertsitatearen C1 ziurtagiria, euskarazko titulu eta hizkuntz ziurtagiriak egiaztatu behar izatetik salbuesteari buruzko 47/2012 dekretuak 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.